



IKASTARO OSAGARRIA

EUROPAR BATASUNA BIDE GURUTZEAN: EUROPAR INTEGRAZIO PROIEKTUAREN ERRONKA NAGUSIAK (2. ED)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2019/2020

ARLOA: Gizarte eta Lege-Zientziak

KREDITUAK: 6 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 0 €

ARDURADUN AKADEMIKOA: **Óscar Abalde**



AURKEZPENA

Ikastaro honek, Europar Komisioaren ERASMUS + programaren aterkipean lortutako Jean Monnet Modulo batean du oinarria eta Europar Batasunaren egungo gaitan gradu ikasketak dituzten edo hauetan murgilduta dauden pertsonen trebakuntza espezializatua ematera zuzenduta dago. Azken urteetan, garrantzi nabarmena izan duten hainbat faktorek zein gertaerek, 2008ko krisi ekonomiko-finantzieroa, Erresuma Batuak EB uztearen erabakia edo EBren ateetan emandako errefuxiatuen krisi humanitarioa kasu, europar integrazio prozesua kolokan jarri dute. Ikastaroak europar proiektuaren krisiaren zioak aztertzea, erronka nagusiak identifikatzea eta amankomuna den proiektu hau berrindartzeko formularik eraginkorrenak proposatzea du helburu. Hori guztia, gogoeta zein debate giro batean eta EB kolpatzen duten arazoei aurre egiteko jarrera positibo eta konstruktiboa batean arituz.

Ikastaroak ikasleek irakaskuntza-programaren edukiekin lortutako berriarazko gaitasunak eskuratzea du helburu. Gainera, ikastaroak zeharkako gaitasunen eskuratzea ahalbidetzen duten formuletan sakonduko du, ikasketa modu jarri eta autonomoan kudeatzeko gaitasunean indar berezia jarriz, beti ere formazio integral bat lortzeko helburuarekin, eta berdintasun, diskriminazio eza eta bake-kulturaren sustaketaren oinarriko eskubideekin bat eginez.

Ikasketa emaitzen artean, ikastaroak helburu du ikasleak kritikoki baloratu ahal izan dezala Europako Batasunaren gaur egungo errealitatea, eragiten dioten arazo zein erronken dimentsio erreala ezagutu ditzala eta arlo honetan eskuratutako ezagutza teorikoak modu konstruktiboan konponbideak proposatuz aplikatzea.



BALDINTZAK

Goi ikasketak burutuak izatea edo ikasten egotea

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2020/01/29tik 2020/06/30era

EMATEKO TOKIA: Zuzenbide Fakultatea (Donostia-**San Sebastián**)

HIZKUNTZA: gaztelania

INFORMAZIOA/ IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Zuzenbide Fakultatea (Donostia-**San Sebastián**)

HELBIDEA: Manuel de Lardizabal Pasealekua, 2. 20018 Donostia-**San Sebastián**

TELEFONOA: 943 015 149 / 693 209 531

POSTA ELEKTRONIKOA: oscar.abalde@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.